



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 28an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi urriaren hogeita hamarrean, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- 2019ko azaroaren 28an BURUTURIKO SAIOARI DAGOKION AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.- Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkezten, beraz, bere osotasunean onartzen da Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaroaren 28an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK. 2020ko urtarrilaren 28an eginiko Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordean aztertutakoak.

2.1) J.E.O.k, GRI Castings enpresatik datorren burdin hautsak bere ibilgailuan sortutako herdoil pinporten inguruko idatzia argazkiekin aurkezten du.

Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidali dizkio, baita udaltzainek eginiko jarraipenaren informazioa.

2.2) M^aL.E.U.k, GRI Castings enpresatik datorren burdin hautsak bere ibilgailuan sortutako herdoil pinporten inguruko idatzia argazkiekin aurkezten du.

Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidali dizkio, baita udaltzainek eginiko jarraipenaren informazioa.

2.3) M.G.k, GRI Castings enpresatik datorren burdin hautsak bere ibilgailuan sortutako herdoil pinporten inguruko idatzia argazkiekin aurkezten du.

Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidali dizkio, baita udaltzainek eginiko jarraipenaren informazioa.

2.4) F.P.A.k, kexa formal bat aurkeztu du, bera eta bere familiakbost urte baino gehiagoz jasaten ari diren txakur-gorozkien arazoari buruz.

Udalak arazoaren berri emango dio Udaltzaingoari, honek arazoaren jarraipen zehatza egin dezan.

2.5) A.S.A.k, burdinezkoak ez diren metalen galdaketa jarduerari dagokion aurretiazko komunikazioa aurkezten du.

Ontzat ematen da aurretiazko komunikazioa, baina gogorarazten da kolektorera isurtzeko baimena aurkeztu beharko dela.

2.6) I.I.k, M.A.S.L.ren izenean, Sansineneako industrialdea A1-1.1.7 partzelan duten pabiloian "Elikagaien industriarako makineriaren fabrikazioa" jarduerarako lehen okupazio baimena eskatzen du.

2020ko urtarrilaren 16an, Udaleko Zerbitzu Teknikoek ikuskaritza bisita egin zuten eta onartutako proiektuarekin eta neurri zuzentzaileekin bat datorrela egiaztatu zen. Ondorioz, lehen erabilerako baimena ematea erabaki da.

2.7) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, H.y M.A.S.L.U.k sustatu nahi duen zepa zuriak balorizatzeko instalazioari dagokion ingurumen baimen bateratuaren proiektuari buruzko idatzia aurkezten du.

Berri eman da. Enpresa interesatuak jarduera proiektua tramitatu beharko du.

2.8) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, G.E.k Zubimusu kalea 10ean musika grabaketa estudioa jartzeari buruzko osasun txostena igortzen du.

Berri eman da. Tramitazioarekin jarraitzeko Gipuzkoako Foru Aldundian neurri zuzentzaileak eskatuko dira.

2.9) San Isidro kalea 16ko Jabekideek, eraikin horretan igogailua instalatzeko eginiko obrak direla eta, obra amaierako ziurtagiria aurkezten dute; eta horrekin batera hondakinen kudeaketari dagokion 715,08 euroko fidantza itzultzeko eskaera egiten dute.

Ontzat ematen da aurkezturiko obra amaierako dokumentazioa, eta fidantza itzultzea.

2.10) I.I.k, R.M.J.B.n izenean, Arroagoiko Juan Erentxun kalea 10eko Alponenea baserria eraberritzeko oinarrizko proiektua aurkezten du.

Obrak hasi aurretik eraberritzearen exekuzio proiektua aurkeztu beharko du, obra zuzendaritzaren izendapenarekin batera. Aurkeztu eta obretako udal baimena lortu bitartean, hasita dituen obrak ezingo dira hasi.

Horrez gain, oinarrizko proiektuan aurkeztu dituen balkoiaren neurriak gaur egungo arauetara egokitu beharko ditu.

2.11) A.M.E.L.k, Igarategibideko Zugasti haundia baserriko terrenoetako 2.475 metro karratu segregatzeko udal baimena eskatzen du.

Hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da.

2.12) M^aP.Ir.A.k, Sabea kalea 1 beheka B etxebizitzako sukaldean obrak egiteko udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.13) Gurutzeaga kalea 5 eta 7ko Jabekideak, eraikin horretako fatxadan garbiketarakonponketa lanak egiteko obretako udal baimena erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.14) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresari "Uztapide" izeneko transformazio zentroa berritzeko baimena ematen dio.

Berri eman da.

2.15) Portale kalea 7ko Jabekideak, eraikin horretan igogailua zero kotara jeisteko eginiko obrak direla eta, hondakinen kudeaketari dagokion 1.376,50 euroko fidantza itzultzeko eskaera egiten du. Fidantza itzultzea erabaki da.

2.16) A.El.G.k, Lizarraitz auzunea 1 behea eskubia etxebizitzan eginiko obrak direla eta, hondakinen kudeaketari dagokion 1.430,72 euroko fidantza itzultzeko eskaera egiten du. Fidantza itzultzea erabaki da.

2.17) M.G.I.G.k, Ondarbaso baserriko berrikuntzaren lanen % 96,73 eginda dagoela eta, obra horien luzapenerako eskaera egiten du. Erabaki da ontzat ematea eginiko eskaera eta obren luzapena onartzea sei hilabeteetarako.

2.18) X.M. eta A.E.k, 2019ko urriaren 2an sarrera eman zitzaion Zestoako Udalean Urdanetabidea 3ko Kortaberri baserriko berrikuntza obren obra amaierako dokumentazioari. Lehen erabilera baimena ematea erabaki da.

2.19) Arroabeko proposamena “gune intergenerazionala”.

Lokalen erabilera itzulera eskatuta dago.

Txostenari erantzun bat eman behar zaio.

Bilera bat egingo da auzoko ordezkariekin.

2.20) P.G.A.k, Aizarnako Zabale baserriaren ondoan duen txabola (nekazaritzarako eta nekazal makineriaren biltegia eta garaje erabilera duena) eraberritzeko obretako udal baimena erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.21) O.M.A.k, Karmengo Amaren errepidea 15ean dagoen Txindurri taberna-jatetxeari beste erabilpen bat emateko asmoa duela azaltzen du. Horrela, lokal horretan bi apartamentu eraikitzeo aukerari buruzko hirigintza kontsulta egiten du. Gaur egungo hirigintza arauen arabera, ezin da baimendu bi apartamentu egitea

2.22) A.P.V.k, Arroaerrekako bidea 1 etxebizitzan teilatua berritzeko obretako udal baimena eman zen. Udal bulego teknikoa, obrako zuzendaritza daraman teknikariarekin harremanetan jarri zen. Teknikariak jakinarazi zuen teilatu berria egiteko alboko habetzan perimetral berria dela jarri duten elementu berri bakarra. Ondoren, Udalak sustatzaileari teilatuaren plano errealak aurkezteko eskatu zion. Bestalde, baimendutakoaz gain, beste lan batzuk egin balira, hauek legezatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez zezala eskatu zitzaion.

Horrela, sustatzaileak eskatutako dokumentazioa aurkeztu du.

Udalak erabaki du teilatuaren obren justifikazioa ontzat ematea eta eginiko lan gehigarriaren dokumentazioa ere ontzat ematea.

2.23) Galdianoren lokala Zestoako Udalak alokatu/erosteko aukera.

Hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da.

2.24) L.A.A.k, Arteaga auzunea 2 etxebizitza erreformatzeko proiektu bisatua aurkezten du eta obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.25) IS.L.k, Iraoberriko bi txabola ordezkatzeko hirigintza kontsulta egiten du.

Eskaera berri bat egitekotan geratu denez, hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da.

2.26) Euskara eta Hezkuntza Batzordearen 2020ko urtarrilaren 9ko hausnarketa HAPOa garatzeko prozesuari buruz.

Berri eman da eta kontutan hartuko da.

3.- PERTSONALEKO GAIAK:

3.1) X.L.A.k, 2020ko otsailaren 11tik ekainaren 19ra (biak barne), 12 urtetik beherako txiki baten legezko zaintzagatik, lanaldi murrizketa eskatzen du. Lan murrizketa eguneko 2 ordu eta laurden izango litzateke, eta asteak txandatu (aste batean bai eta hurrengoan ez). Eskaera onartzea erabaki da.

4.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2019ko abenduaren 10ean Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko azaroaren 12an Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko abenduaren 5ean Ingurumen eta Landa Garapeneko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko abenduaren 19an Kultura eta Ondare Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko abenduaren 12an Euskara eta Hezkuntza Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko abenduaren 2an Sozioekonomia eta Herritarren Parte Hartze Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urtarrilaren 9an Euskara eta Hezkuntza Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urtarrilaren 14an Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urtarrilaren 16an Kultura eta Ondare Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urtarrilaren 22 Gizarte Harremanak eta Parekidetasun Batzordeak eginiko ez-ohiko bileraren akta onartzen da.

6.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- 346 zk: Toribio Alzaga 14ko lursail baten doako lagapenaren eskriturak tramitatzeko diru ordainketa
- 347 zk: 2019ESOR0030 Arkitektu aholkularitza espedienteari buruzko txosten eskaera
- 348 zk: 2019ko Lan Eskaintza Publikoan Gizarte Zerbitzuetako Administrazio laguntzailearen oposaketak abiarazteko dekretua
- 349 zk: M. A.G. A. jaunari gainbalioari buruzko erantzuna
- 350 zk: Arroa Beheko abesbatzari 2019an eginiko zerbitzuengatik egin beharreko ordainketa
- 351 zk: B.P.S. J. jaunari gainbalioari buruzko erantzuna
- 352 zk: 2019ko kuotaren ordainketa Udalbiltza Partzuergoari
- 353 zk: Abenduaren 12an "Haizearen egia" filma Zestoako plazan grabatzeko baimena
- 354 zk: Larrain kalea 9ko aterpean eta fatxadako lehenengo pisutan obrak egiteko baimena
- 355 zk: Portale kalea 7an aparkalekuak okupatzeko baimena
- 356 zk: Arteaga auzuneko plazatzoko eserlekua konpontzeko eskaera

- 357 zk: Iraetako futbol zelaiko kanaloiak garbitzeko elebagailuaren eskaera
- 358 zk: E. T. S.A. enpresari gainbalioari buruzko erantzuna
- 359 zk: Iraetako futbol zelaiko aldageletan konpresak botatzeko bi zakarrontzi gehiago jartzeko eskaera
- 360 zk: Arteaga auzunea 16 sarreran irisgarritasuna hobetzeko plataforma jartzeko baimena
- 361 zk: Aizarnan argirik ez dagoela eta kexa
- 362 zk: Erdikalea 4an azaroaren 14an plataforma jartzeagatik okupazio baimena
- 363 zk: Iraetako Telleria baserriaren eraberritzeko zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun koordinatzailearen izendapena
- 364 zk: Alonderoneko aldapako igogailuaren obragatik jarritako abalaren itzulketak
- 365 zk: 2019ESOR0030 Arkitektu aholkularitza espedientearen bertan behera uztea
- 366 zk: Zestoako Udalak Zestoako Musika Bandari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren azken zatia ordaintzeko agindua ematen duena.
- 367 zk: Zestoako Udalak antolatzen dituen hainbat jarduerak ordaintzeko agindua ematen duena.
- 368 zk: Iraetako Granero etxeari buruzko kontsulta urbanistikoa
- 369 zk: Dirubiltzaileak proposatutako itzulketak egitea
- 370 zk: Arteaga auzunea 14ko fatxadako obretako kontradiktorioak
- 371 zk: Hormorren jarduerari buruzko hirigintza txostena
- 372 zk: Endoiako telefonia mugikorrekiko desmuntaketaren hondakinen kudeaketaren ziurtagiria aurkeztuz
- 373 zk: Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatuzeko esparru akordioa" burutzea "LOTE 1: GUREAK MARKETING S.L.U."
- 374 zk: Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatuzeko esparru akordioa" burutzea "LOTE 2: CORREOS."
- 375 zk: Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez bizitza eta istripu aseguru zerbitzu espedientearen atxikipena
- 376 zk: Agote AG.I.2 urbanizazio proiektuaren rezeptzioa eta abalaren itzulketak
- 377 zk: 2019urteko ekarpenaren %25aren ordainketa Iraurgi Berritzen
- 378 zk: 2013an egoitzan egin ziren obren urte honetako ordainketa
- 379 zk: Gizarte larrialdietarako laguntzen abenduko ordainketa
- 380 zk: Alokairuko dirulaguntzen abenduko ordainketa
- 381 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna E.C.S.L.
- 382 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna A.E.E.
- 383 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna F.S.L.
- 385 zk: Gurutzeaga kalea 5 behen duen garajeko zoruaren masa botatzeko udal baimena
- 386 zk: Gurutzeaga kalea 5eko Txoko-txiki okindegiaren jarduerak
- 387 zk: Lourdes-enea tabernaren jardueraren dokumentazioa ontzat ematea

2020 urtekoak

- 1 zk: Altzolaraspidea 1 etxebizitzara doan eskailera ondoko horma konpontzeko udal baimena
- 2 zk: Zestoako Udalak Antxieta Jakintza Taldeari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren azken zatia ordaintzeko agindua ematen duena
- 3 zk: Iraetako festa batzordeari Santainesak antolatzeko diru ekarpena egiteko agindua ematen duena.
- 4 zk: 2019-2020 ikasturtean G-2701 ibilbidea egiteko baimena ematea
- 5 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena
- 6 zk: Logopedia zerbitzua kontratatuzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko, Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalen arteko hitzarmena
- 7 zk: J.U.I.M. erreklamazio patrimonialaren espedientearen hasiera
- 8 zk: Sorabil-berri baserriko teilatua konpontzeko obretako udal baimena
- 9 zk: Ezenarro baserriko ukuluko teilatua konpontzeko obretako udal baimena
- 10 zk: Goikoetxe baserriko esne-behientzako ukulua egokitzeko jarduerak kalifikatuaren aurretiazko komunikazioa
- 11 zk: Artzubia aldeko ibardiaren berreskuratze eta hobetze lanen azaroko eta abenduko kamioi erregistroak
- 12 zk: Zestoako Udalak Aizarnako Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketarako agindua.
- 13 zk: Zubimusu kalea 1 eraikineko fatxadan konponketa lanak egiteko obretako udal baimena

- 14 zk: Sarrondo-behekoa baserriko ganaduaren purinentzako depositua egiteko baimena
- 15zk: Siemens Sansinenean egiten ari den pabiloiaren itxitura
- 16 zk: Zestoako Udalak Zestoako Ertxiña Musika Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dien zuzeneko ordainketaren zatia ordaintzeko agindua ematen duena
- 17 zk: Olazar baserrian bigarren etxebizitza egiteko obretako baimena
- 18 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna J.M.I.O
- 19 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna A.A.
- 20 zk: Sansineneako burdin hautsaren inguruko erantzuna A.H.N.
- 21 zk: Iraetako Lokatza etxearen lehen erabilerako baimena
- 22 zk: Zubimusu kalea 6 aurrean aparkaleku bat okupatzeko baimena
- 23 zk: Arroarrekako bidea 19an igogailua jartzeko udal baimena
- 24 zk: Atristain baserria ur edangarriaren sarearekin lotzeko eskaera
- 25 zk: Zubimusuko ibai aldeko pasabidea eta Mapfre inguruko itutri aldeko zaborraren inguruko idatzia
- 26 zk: Siemens-Guascorrerako gasaren akometida egiteko udal baimena eskaera
- 27 zk: Elizarako gasaren akometida egiteko udal baimena eskaera
- 28 zk: Zestoako diru-laguntzen Plan Estrategikoaren espedienteari hasiera ematea
- 29 zk: Jarduera baimenean ezarritako neurri zuzentzaileen obretako exekuzio proiektua A.T.T.S.L.
- 30 zk: Kaleokerra 13ko fatxadan dagoen Iberdrolako linea kendu eta lurrazpian sartzeko eskaera
- 31 zk: Endoiabideko Baltxolaberriko okergunean haitzak puskatzeko material eskaera
- 32 zk: Estazioan dauden platanondoak kimatzeko baliabide eskaera
- 33 zk: Aurrefabrikatutako moduluak kendu eta beste bategatik ordezkatzeko hirigintza kontsulta
- 34 zk: Kiroldegiko bazkidetzarengatik ordaindutako itzultzeko eskaera
- 35 zk: Ibilgailuaren zergaren ordainketa sei hilabeteetan zatikatzeko eskaera
- 36 zk: Plusbalioari dagokion zergaren ordainketa bi hilabeteetan zatikatzen eskaera
- 37 zk: Udalaguntza 2019 dirulaguntzetara Arroako eskola berriko jolas guneko egokitze lanak sartzeko onarpena
- 38 zk: Udalaguntza 2019 dirulaguntzetara Zestoako Herri Eskolako jolas guneko egokitze lanak sartzeko onarpena
- 39 zk: Ondarbaso baserriaren eraberritzearen luzapen eskaera
- 40 zk: Kiroldegiko aparkalekuak eta Alkartetxe eta Gurutzeko zebrabideen egoera
- 41 zk: Arroagoiko kanposantuko bi sepulturen titularitate aldaketa

7.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Arroabeko GI-631 errepidean oinezkoen segurtasuna hobetzeko exekuzio proiektuaren ebazpena.

8.- GALDERA ETA ERREGUAK

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 15:15ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,